




---

*Mujika ta Urrestarazu'ar MATEO*

---

*Iruña'ko Gotzai jaunak  
bere Eliz-barrutikoai  
egiten dien  
Hitzai-eskutilza*



*Mujika ta Urrestarazu'ar MATEO*


*Iruñá ko Gotzai jaunak*

*bere Eliz-barrutikoai*

*egiten dien*

*Artzai-eskutilza*

*or*



# ARTZAI-ESKUTITZA

**NIK MATEO MUGIKA TA URRESTARAZU,**

Alki Santu Apostolutarraren ezkerrez Iruñako Gotzai,  
Españako Apezen Misio-Batzarren Buru, Protonota-  
rius Apostolicus, etc., etc.

Gure Eliz-buruko Dean eta Apezteri Agurgarriari, Orreaga'ko  
Lenenkari ta Apezteri agurgarriari, Apez Buru, Apez-aita,  
Ordekari ta beste Apez jaun guziei eta Elizbarruti'ko Praille,  
Monja goretsiei ta siñestun guzfoi.

**OSASUNA TA GRAZIA JESUKRISTO GURE YAUNAGAN**

*Custodite sabbatum meum; sanctum  
est enim vobis: qui polluerit illud, morte  
moriatur.*

Yay egin nere yay-eguna, gauza saindua  
izan bear du-ta zuentzat. Ori egiten ez  
tuna, indarrez illazia izan bedi.

(Exod. XXXI. 14)

Nene eliz-barruti maite ontako erri frankotara yoan bear izan  
dut Igande ta Yai-egunetan, Nere artzaingoko eginbearrak era-  
manazi-ta. Ayetatik arratsaldean etxera itzultzean, bein bañc  
geyagotan poztu izan naiz eta ez nola nai, ikusi baitut zeñen  
ongi betetzen duten Naparroa'ko erri geyenetan, batez ere Ne-  
re eliz-barrutikoetan, Igande ta Yai-egunak yai egiteko Legea.

¡Oi, nolako poz eta alatasunarekin erabili izan ditut nere bu-  
ruan, bearrezko yai ibillera oyetan, au ta onen antzeko pentsa-  
mentuak!: «Elizara bideak, naiz goizean, naiz arratsaldean, bez-

pera garayean, yendez beteak agertzen dira; ara, non dauden arratsalde biotzean sailka-sailka (multzoka-multzoka) elkarturik, asteko gertaerak umore onean berrituz. Begira, ordea..., landetara, belardi ta alorretara; begira... nai duzuten urrutienearaño (urruneneraño); ara, zeru lurra bat dagiten (egiten duten) artaraño..., jez ta ifion gizonik, ez ta langillerik nabaritzen! Guzia geldi dago, guzia ixilik dago: gizonak eta abereak, goldeak eta makinak..., lurra berak ere, ats artzen ari dala, dirudi!

Ori genion eta, garai berean, geren baitan esaten (erraten): ¿izan al diteke, bada, Yai egunak yai egitea baño gauz ederra-gorik? ¿izan al diteke, bada, Igandetako atsedean artzea ta yostatzea baño gauz egokiagorik, elizkizunai kalterik egin gabe eta oyek bete ondorean, ez naski galbidetara garamazten yolasetan, baño Elizak eta Gizabideak ontzat artzen ditun ayetan?

*Kristau oriek*, bai, ongi dakite, Nere biotzeko semeok, Yai-eguna bear dan eran igarotzen, garai oyetakoko diru naiak eta aragikeriak irietan (erri aundietan) sortu dizkigun deabrukeririk gabe. Pillotan, tokean, balankan, birletan eta beste olako yokuetan nai bezela yostatu ondorean, pake derrean, betiko garayean etxeratzen dira. Ez paitira oyentzat egin gauezko ostatuetan mozkortzea, teatro ta zinetako lasakeria, gal toki zenbaite-tako lizunkeria, kafetako asti (denbora) galtzea eta kasino ta biltokietan egiten diran *aberatsen yolas* diralako oriek!

*Kristau on oriek*, Yainkoak nai bezela, igarotzen dituzte Yai-egunak. Yostatu dira, atsedean artu dute, nai adifia poztu ere dira. Yainkoa ta beren lagun urrengoa naigabetu gabe, ordea; beren etxearen eta beren buruen kalte gabe, ordea!

Eta au ala izanik, ¿zergatik, zenesakete (esan zenezakete), Igande ta Yai-egunetan yai gordetzeaz bakarrik, Artzai Gutun (Eskutitz, Pastoral) bat argitaratu ta elizetan irakurri-azi (leitu-azi)?

Ara, zergatik, Nere seme maiteok: Bear-bearrezkoa baita kristau on oriek bide zuzen ortan indartzea, beren poztasunerako oroitu-aziz Yainkoaren eta bere Eliza Sainduaren aginduak.

Deabruak (txerrenak), masonak eta beste gizon galduak lagun ditula, Igande ta Yai-egunetan erri aundietan yolas mota (klase) guzietatik sortu dizkigun arabera Elizetatik yendea aldentzeko, erri ta errixketan egin ahalak egiten ari da, dirua irabaztea ez, beste gogapen (pentsamentu) guziak, nekazari ta

besta langilleen burutik kentzen. ¡Ez paitu an arkitzen, ori baño, bide oberik, beren animak galtzeko!

Yai-egunak eta Igandeak yai egiteak zeruko onespenuak (bendizioak) dakarzkigun bezela, ayetan lan egiteak galtzera bota baidezazke erriak.

Artu ere baiditut gai ontaz eskutitz (karta) franko Nere Parroko Agurgarriakgandik eta ez tira gutxi Nere yauregiraño (palazioraño) etorri (xin) diranak ere, arrén! laguntzeko, beren egin ahal guziak ez tirala aski-eta, Yai-egunak eta Igandeak beren errietan gorde-azteko.

Azkenik, eta au da Nere apezkide maiteentzat eta Neronendako ere mingarriena, bai omen diralako Iruña'ko eliz-barruti ontan ere, Yai ta Igandeak berariz gordetzen ez dituzten *erri-zati* (parte) ta *erri osoak* ere, bearrik gabe ta baimenik gabe, guzien aurrean (aintziñean) lan egitea.

Ara, bada, zergatik doakizuen eguneko (gaurko) Artzai Eskutitz au. Egiaz, egiaz dasazuet (esaten dizuet): inólaz ere ez nukela nai Nere eliz-barruti ontan edo bere zatiren (parterren) batean, Bernardo Sainduaren deadar negargarri ura bete dadin: *Transeunt solemnitates, remanent iniquitates. Yai-egunak eldu dira. ¿Zertarako? Obenak (pekatuak) obenen gañera biltzeko!*

Asi gaitezen, bada, ta goazen pixkeka.

## I

### Bearrik gabeko lan egitea

Ongi izango da noski, aurren-aurrenetik (aintzin-aintziñetik), zer esan (erran) nai dudan garbi adiraztea. Erran dut, *bearrik gabe* lan egitea ez tala zillegi (aizu) ta ez tala egin bear. Izanez ere, bai baitira zenbait aldi (kaso) berexi eta oyetan zillegi baita *lan egitea*, eta *lan egin-aztea*.

Iru aldetakoak dira gizonen egintzak edo obrak, baño *ne-kearen bidez* egiten diran ayek *bakarrik* daude Yaietan debeatuak. Oyetan ez ditezke kristauak ari lanean, ez paldin bada: edo *Eliz eta Gobernuaren baimena eskatu-ta*; edo *oitura (aztura) zar eta onen baten bidez*; edo *yainkozko eginbearren batean*; edo *norbera beariturik*; edo *lagun urrengoa ganako urrikaltasunak egin-azirik*; edo, azkenean, *gizadiaren onak*

*ala eskatzen duncan.* Gobernu legeak ere, elizekoari yarratuz (segituz), gutxi gora-beira, ori bera dakar, belaxen ikusiko dugunez.

Eman zun Gobernuak lege bat Yai ta Igandetako lanaz, 1904-ko (milla bedratzireun eta laugarren urteko) Martxoaren (Epaillaren) 3-an. Gero, berriz, eman zun, lege orren beteazteko, Araudi edo Erreglamentu bat eta, ara, emen zer dion onek:

*Lenengo buruaren lenengo saila edo artikuloa:* Martxo ontako legearen arabera (lenengo saillean dakar au legeak), iñork ez tezake Igande ta Yaietan besterentzat lanik egin, nekezko lana baldin ba da; ez ta beretzat ere agirian (1) baldin ba da, naiz oletan (pabriketan), lantegietan, almagazetan, sal-erostetxetan (naiz etxetik saldu, naiz ibillian saldu), meatzetan (minetan), arrobietan, puertotan (kayaldetan), gauzen eraman da ekartzean, etxe egitetan, berritzetan, botatzetan, *neka-salgoko lanetan*, baso lanetan, bai ta ere Gobernu, Errialde (Probintzia) ta Errikoetxeen menpeko etxe ta langintzetan. Azkenean, bai ere, oyen antzeko, besta arazoetan (ibillertan). (2).

*Bigarren Saila.* Nekezko lana esatean, esan nai dugu: nekearen bidez egin bear dan edozein lanbide.

*Bigarren buruan dakar zein lenetan ari ditoken Igandetan:*

*Lenengo saila.* Lan egin diteke Igandetan ere: 1.º Gure bearren betetzera datorzen lanetan; gizadiarentzat nai ta naiezkoak diran lanetan; eta langintza beraren onak ala eskatzen dulako, gelditu ez ditezken lanetan. 2.º Lanaren izanerak ala eskatu-ta, gelditu gabe ari bear duten lanetan.

*Zortzigarren saila.* Bai ta ere ari diteke ol eta lantegietako berritze ta garbitzetan, asteazko lana ez gelditzekotan, bearrezkoak baldin ba dira. Baño, ez diteke ori bera egin, iñolaz ere, sal-erostetxetan.

*Bedratzigarren saila.* Egin ditezke alaber (igualmente) nai ta nai ez egin bearreko lanak: edo, bestelaz, kaltea datorrelako; edo, berez, baño, ustekabeen gañera etorri (yin) zaizkigulako; edo, bein ere egitekotan, aldi artanxe egin bear diralako.

(1) Gobernu legeak *agirian* lan egitea debekatzen du; Elizak, ordea, arimen Ama baita, ixillan eta ezkutuan lan egitea ere bai.

(2) Begira *Alcubilla* 195,414-garren orrialdean eta aurrera.

*Irugarren burua. 10-garren saila.* Igandea, larunbat gaueko amabietan asten da eta urrengo gaueko amabietaraño dirau. Ogei ta lau ordu osotan, bada, ez diteke, beraz, lanik egin...

*Laugarren burua. 24-garren saila.* Lege onen eta Araudi edo Erreglamentu onen ez betetzeak nagusiaren gain yoango dira, obenik ez tula ez paldin ba da beintzat agertzen, besterentzat lan egiten danean. Langille bat bakarra aritu ba da lanean, 25 pezeta bitarteko okerra (multa) izanen du nagusiak; 25-etik 250 bitartekoa, amarretik gora ez pa-dira langilleak. Geyago baldin ba dira, berriz, zenbat dakarren oyen Igandeko lanaren irabaziak, ainstesteren okerra (multa) izanen du.

Urte berean berriz utsegiten ba du, erriko agintarien deitzea eta 250 pezetan okerra izango du; ortik aurrera ere erortzen ba da, langilleai (langilleer) bitartean Igande lanagatik eman dizkien sariak eta beste ainsteste, aldioro.

Nor beretzat eta agirian lanean ari ba da, pezeta batetik 25 bitarteko okerra izanen du lenengoan; bigarreanean eta aurrera, berriz, aldiko 50.

*Ogei ta bostgarren saila.* Errikoetxe legea (Ley muuicipal) dalakoaren 77-garren sailak dión arabera, diru ori ordainazi bear da.

*Ogei ta zortzigarren saila.* Orrela biltzen dan diru ori, berriz, beartsuei eta langilleei laguntzeko izango da.

Eliz legeak eta Gobernu legeak, biek era batera, Igande ta Yai-egunetako lana gaitzesten eta debekatzen dute. Biek diote, zenbait alditan, au da, itz batean esateko, *bearra dagonean*, lan egin ditekela. Bear da, beraz, Igande ta Yai-egunetan lan egitekotan, *bear garbi-garbia*; edo, bear au ain agirikoa ez tanean, *bear dan baimena*, gañera. Eta, geyenean, yendeak ez paitezake ezagutu, *artaraño berra oten dan ala ez*, bi baimen oyetxek eskatu beitzta: Apez nagusi (Parroko) edo Gotzain yaunagandik, oyek ikusi bear baitute, bada, alako berra dagon ala ez, gauza ain agirin ez tagonean; eta Gobernuaren agintariakandik, —naiz Elizaren baimena izan—, okarren bat izan lezakete-ta, onen legea ez betetzeagatik.

Ikusten duzute, bada, zer esan nai dudan: Igande ta Yai-egunetako lana arrunt (oso) gaitzesten dut, *egiazko bearrik gabe*, oitura (aztura) txarrez baizik eta mundu ontako gauzen

geyegizko naikeriangatik, egiten dalarik. Ara, orain, zergatik ola itzegiten dizuegun (mintzatzen gaitzazkizuegun).

## II

**Kristau guziok eman bear diote Yaungoikoari, Berak nai duen eta berexi dun, agurtza (adorazioa) eta gorespena (gloria)**

Aldi guzi-guzietan Yaungoiko Gure Yauna goretsi bear dugu. Naiz yende ta gauza guziek ere lege auxe bete bearrean dagoz. Berak gauza guziak egin zitun eta *eztu* egifetarik, ez ifloren ez eta ezeren *bearrik*; bañ, denak Aren mendean daude. Guzientzat, neurri gabe, ona da; gizonentzak, ordea, batez ere. Bere saindutasunak, Bere ahalak, (podereak), Bere zuzentasunak eta yakinduriak ez tute neurririk. Bere bizia, beste bizi guzien iturria da; guganako dun onginaia eta urrikaltasuna, ondar gabeak dira. Bere eramanpen azken gabea, norañokoa ote dan, ez tugu bein ere ezagutzen ahal, lur ontan bizi geran arte. Bere naia (borondatea) guzielduna da eta guziz goresgarria. Alde guzietan, an dago Bera. Dena ikusten du eta ezagutzen du, bai ta gure gogapen ta naikunde izkutuenak ere. Guzia Berak darabil, guzia Berak zuzentzen du; artza ikaragarritik asi ta, txepetxerañ; arrano egalaritik, moxorro txikieneraño; Aingerutik, azke-neko biziduneraño.

Gure izate te egintza guzien yabe da; ez ta nior, beraz, Bere esku zuzenaren mendetik iges egin dezakenik.

Sortzean, aurtzaroan, gaztearoan, gizonaroan, zartzaroan eta iltzaroan; beti ta alde guzietan, Yainkoarenak gera, eta Beragandik dugu, daukigun guzi-guzia.

Berak goratu gindun, gure izateak eskatzen ez tun mailera eta biziérara. Eta, Adanen oben ura zalako, betiko galduk geundenean, Berak erosi gindun, zeruratzeko ta betikotasunean izateko bidean yarri gindun, Yainkotasuneko bigarren laguna, Seme Yaungoikoa, gizon egitearekin eta gure alde gurutzean iltzearekin. Orduz, geroztik jai mendien goyenean eta ibarren sakonean; illobien (sepulturen) isiltasunean eta eliz-torre liraiñen muturrean; artzai txaboletan eta aberats yauregie-tan (palazioetan); elizan, zabaletan, bidean eta landetan, gurutzean elkarturik ikusiko dituzuten bi zur edo bi burni ayek, noiz nai ta non nai, berdin gabeko Yainkoaren gizona maitatze ura,

Kristo gue Erosle ta Zeruratzalearen oñazeak eta naigabeak, gurutz-iltzatzea, il eta obiratzea bururatzan eta begien aurreratzen dizkigute.

Erran dizkizuegun gauz oyek denak—eta bein ere ez genizuke bear ainbat esango—gizonak Yaungoikoaren eta bere Seme bakar, Yesukristo gure Yaunaren agindua egiteko, *Berak agurtzeko ta goresteko*, oyuka ta deadarka eskatzen digute. Eta ez ta ori ere aski. Emaitz eta ondasun oyek denak, berez, Aren aginduak zintzo betetzeaz gañera, gau ta egun gelditu gabe, zerun aingeruak dagiten bezela, gizonak Yaungoikoa gorraldu ta bedekatzeko, eskatzen digute.

Baño, jai, bere deusezkeriak alde batetik; andik eta emendik sortzen zaizkion arazo ta eginbearrak bestetik, ez tiote uzten aingeru bizimodu ori eraman dezan. Baño, au ola izanik ere, ez ote gera, kristauak, astean bein egun bat Yaunari eskeintzeko bederen, eta egun ori—ats artuz, bidenabar—zeruko gauzetan batez ere, igarotzeko adifña? ¿Ez ote da, bada, gizonaren egitekorik aundiena, Yainkoa mintzatzen zaigunean (itze-giten digunean), ixilik egotea; agintzen digunean, agindua egitea, Berak agindu bezelaxen? ¿Eta ez al digu argi ta garbi agintzen Igandetean eta Yai-egunetan lanik ez egiteko?... Ikus zagun.

## III

**Zer dion Testamentu Zarrak Igandetako lan egiteaz**

Yaungoiko gure Yaunak nai izan zuen Testamentu Zarreko garayean, Berak ber-berak eman eta yakin erazi, Bere errik bete bear zitun aginduak. Au gerta (tu) zalarik Sinai'ko mendian, ortz-otsak (trumoyok) eta tximistak (oiñaztarrak), suak eta aizearen furrindak adi-erazi zioten isrraeldarrai, Yainkoa mintzo ziltzayola Moises, beren Gidariari. Yaunak esan zien, Moises'en bidez, Berari bakar-bakarrik agur egin bear ziotela, eta Bere izen saindua ez ibiltzeko alperrik ifloiz ere agoan. Eta yarraitu (segitu) zuen, esanez: «*Oroit adi, erria, nere Yai-eguna gordetzez. Lan egik (egin ezak) sei egunetan, eta ire eginbearrak bete. Zazpigarrena, ordea, Yai-eguna duk. Atroiteko (ats artzeko) ta Ni, ere Yainkoa, agurtzeko, Neronek, bere-ritako eguna duk au. Ez tuk egun ontan lanik egin bear: ez ki, ez ire semeak, ez ire alabak, ez ire mutillak, ez ire neska-*

*meak (nêskatoak), ez ta ere abereak, ez eta ire elxean dagon kanpotarrak ere. Sein egunetan egin baizitun Yaunak ortzea (zerua) eta lurra ta itsasoa, eta beroyetan diran gauza oro (guziak), eta zazpigarrenean ats artu baizuen; orrengatik onetsi (bedeinkatu) zuen Yaunak bere Yai-eguna eta donetsi edo santifikatu zuen. (Itzul XX, 8-an)».*

*«Gorde nere Yai-eguna, dio, berriz, aurreraxeago (Itzul. XXXI, 14-an); gauz saildua izan bear du-ta zuendako. Gordetzen ez tuna, eriotzaz erailla izan bedi.»*

Goazen aurrera (aintziña), ta Zenbatze edo Kontatze liburuan (XV, 32 etik 36-erako itz neurtuetan) gertaera izugarri auxe begien aurrera datorkigu. Ikaskaiétako eta zintzogarritako izandu ba-zan isrraeldarrendako,-dio beronetaz Szio Aitak-bearretan izan bear luke kristauéndako. Zintzoak izan bear baitute, bada, oyek Yaiegunak gordetzen, Yaungoiko gauzetan ibilliz, eta beste lanak alde batera uzten dituztela. «Gertatu zan, bada: Isrraeldarrak Erbestetik beren Errira zeyoazelarik, basamortuan zeudela, gizon bat egurketan arkitu zuten Yai-egunean. Erakarri zuten, Moises eta Aaron eta erriko yende guzien aintziñera (aurrera); eta oyek presondegira sartu zuten, ez paizekiten zer egin berarekin. Eta Yaunak erran zion Maises'i: Eriotzaz il bedi gizon ori. Atera ezak bizitokiz (kanpamentuz) kampa eta erriko guziek arrikatu bezatek eta arrika il azi bezatek. Eta, kanpora aterarik, arrikatu zuten eta, Yaunak agindu bezela, arriz erailla izan-du zan».

¡Ori da gizonaren il-azteal lkara ematen du gogoratze utsarekin ere. Baño, ori deus ere ez ta, Deuteronomion irakurtzen dugunaren aurrean (aintzinean) yartzen ba-dugu (XXVIII, 15-an). Moises, gizon otzan (eme) eta samur ura; bein baño geyagotan, isrraeldarrai barkatzeagatik, Yainkoari bere bizia eskeñi zion ura da orain, Yaunaren izenean mintzo zaiguna (itzegiten diguna). Erioa (eriotza) urbildu zitzayonean, bere arima Egilleari eman aurrean, bil-azi du bere mendeko erria Nebo mendian. Adi-erazten dio garbi-garbi, Yaunak lagunduko diola, bere erri kutunari bezela, etxean eta irian, alorretan eta belaietan, familian (sendian), bertatik zituzten gauzetan eta aurrera izatekoe-tan ere, baldin Aren esana aditzen ba-du eta agindu guzik txaro betetzen ba-ditu. Baño, bestelaz..., ara, zein ikusgarri illuna

begien aurreratzen dion bere erriari: «Ez pa-duk, ordea, eure Yaun eta Yainkoaren esana entzuten; ez pa-dituk bete eta gorde nai Bere aginduak eta, nik emandako, txeetasun guziak..., ara, zer datorken ire gainera! Madarikatua (añendua) izanen aiz errian, madarikatua andik kanpora. Madarikatuk ire aletegik (arkak), madarikatuk ire egintzak (obrak) ere. Madarikatua eure sabeleko aurrea eta ire lurreko zitua; eure beitaldeak eta artaldeak... Gosea bialiko al dik eta gose gaitza Yaunak iregana. Madarikatuko ditik, ik eginen dituk egintza guziak, eta galduko au eta arrunt xautuko au, Bera alde batera utzi-ta, ere galbideak yarraitu ditukelako. Lurretik ondatzerañoko izurritea (gaitz gaitztoa) bialduko al dik Yaungoikoak iregana... Bear gorrian yarriko al au; sukarrez berotuko al au ta otzez izoztuko al au; egoaize sutuaz eta aize pozoituaz kiskalduko al au; eta ez al dik, bada, pakean utziko illazi artean. Burni biurtuko al duk, gainean duken ortze edo zero ori eta arri eginen al duk, oin azpin darabilleken lurra. Euri bearrean, errautsa bialiko al dik Yaunak ire lurrera eta auts txea, berriz, ere gainera, arrunt deuse-taratuko auen arte...»

Olako zigorrada bere erri ta mendekoai opatzean (nai izatean), zeñen gauz gorrotagarria ez ote zan Moises'entzat, Sinai'ko mendian ortz-otsez eta tximistez yakin-erazi zan Legeko aginduen ez betetzea!... Baño, ez tzion, seme maiteok, Moises'ek baKarrrik, Yai-eguneko lan egiteari eta Igande austeari eraso ta gorrotatu. Israel'ko gizon aundi ta yainkozko guziok: Yerusalen'go Eliza eta iria berriro goratu zutenak; bere Lege biltzale ta beteazitzaleak; bere Igarle edo Profeta, bai ta Zaindariak ere, berek txeeke Legea beteaz gainera, beren deadarrak eta zigorra goratu zituzten Yai-eguneko lantzaleen kaltetan.

Neemias, Yerusalen'go Elizaren egilleak, pekatu onen gain botatzen ditu, iri ontara erori ziran zorigaitz eta makur guziak, esanez: «Ez al dakizute zer gaitzakeri dan Yai-eguna auste, zuek egin duzuten bezela? ¿Ez al zuten ori bera egin gure aurrekoak (aintziñekoak) eta ez al du Yaunak, beragatik, gure gain eta Yerusalen'en gain, zoritxar eta gaitz guzietarik bota? Eta zuek, oraindik, Yauna Isrraelen kontra asar-azten, Yai-eguna ausiaz!»

Orobat (igualmente) dio, Yeremias, Yaunaren asarrea ain

maiz agoan zuen Igarle edo Profeta arrek (XVII, 27 an): Ez pa-didazute, bada, entzuten Yai eguna gordetzeko ontan, eta zamaketan ba-zabilzete Yerusalengo yende guzien aurrean, sua erazekiko dut bere lau atetan (atarietan) eta guzia erraustu artean, ez tut itzaliko.

Ola, bada, Makabeoak zeritzayen zazpi anayak, Antioko errege gizatzarrak Yai-egunean eraso zielarik, ez zuten egun ortan beren buruei begiratu ere nai izan. An il ziran guziok: «*berak eta beren emazteak eta semeak, bai ta beren abereak ere. Milla gizon bederen, an il ziran guzitara*». (I Mak. II, 35-38-raño). Isrraeldar on da zintzo guziok, Legeari yarraituz, beren yanaria ere larunbatean eratzen zuten, larunbat illuntzea baño len. Eta oyek denak, jez al digute argi ta garbi adi-erazten zer begirapen eta lotsa zion Isrrael'ek, Yainkoaren erriak, Yaietan lanik ez egiteko agindu sainduari?

Bai, laguntzale agurgarriok eta seme maiteok, Yai-eguna, Yaunaren eguna, asteko egunik nagusiena, obena, aundiena eta sainduena zan isrraeldarrentzat; eta eliz gauzetan, arima gauzetan, igaro bear zan eguna, gañera. Asteroko Igandek aski ez zituztela, Yai berri pranko sortu zuten. Ala, bada, zaletasun aundienakin yaitzen zuten *zazpi asteen astea*, Pentekotes'ekoan bukatuz; *zazpi illen astea*, «tururu», «garbitze» eta «txabolen» yaiean bukatuz; *zazpi urteen astea*, eta oyen azkenengoa zan yaiduna; ta, azkenean, *zazpi urte yaidunen astea*, Yubileo urtean bukatzen zala (1).

#### IV

##### Zer dion Testamentum Berriak Igande ta Yai-egunetako lanaz

Gure Eliz Ama Saindu, Alde guzietako, Apostoluar eta Erromakoak erabaki zun kristautasunaren asiera beratik, isrraeldar edo yudioak larunbatean Yai egiten zuten bezela, urrengo egunean, au da, oraingo igandean Yai egitea. Bai ta ere, Igandez landara, beste Ya-egun batzuk autatu zitun. ¿Bai ote zezaken?—Nola ez, Nere seme maiteok, Elizaren Lendakaritza eta Agintza guzia Apostoluei, eliz buruai bezela, betiko ematean,

(1) Ikusi Vigouroux-Jaugei. Eta beste, Eskritura Sainduaren Sarrera dakarren edozein liburu.

Yesukristo gure Yaunak erran zizkien itz oyek garbi-garbiro erakusten baidigute?: «Agintza guzia emana izan zaidak, dio, Zeruan eta Lurren gain. Orrengatik, bada, nere Aitak biali niaiken bezela mundura, nik ere alaber bialtzen zaituztet. Zuei entzuten dizuenak, neri entzuten didak (zidak); zuek gaitzesten zaituztenak, ni gaitzesten niaik. Eta ni gaitzesten nauenak, ni biali nauen Uraxe gaitzesten dik. Ala, bada, zuei aditzen ez ti-zuena, Elizaz kanpoko bezela eta pekatari gaizki ikusia bezela izan bedik. (Mat. XXVIII; Yoan. XX; Luk. X)».

Bein ere, ez ta mundua egiteko egunean ere, ez tzun Yaunak bere Agintza ola ager-azi; bein ere, ez tzigun ain estu agindu, Aren esana egiteko. Elizaren Agintza ta Nausitasuna, beraz, Yesukristoren Agintza ta Nausitasunatik datorz; Onena, berriz, bere Yainkotasunetik. Ara, bada, or, non dagon, Kristo berak dionez, Elizeko Agintza ta Nausitasunaren asiera ta iturria. Agintza ta Nausitasun orren bidez, Gure Eliz Ama Sainduak agindu ta erabaki zun Igande ta beste zenbait Yai gordetzeko, Lege Berrian. Beraz, Eliz Ama Sainduari, seme onak bezela, gogo onez entzun bear diogu gauz ontan. Bestelaz, gure Yesus onak, Eliz Ama Sainduaren buru zerukoa dan Arrek, yentillak eta pekatari gaizki ikusiak baño makurragoak bezela, gaitzestuko gaitu.

Beste (bertze) aldetik, jezpaiean yarri al diteke ongi egin zula Eliz Ama Sainduak, Igandea len zegoen egunetik, au da, larunbatetik, orain dagon egunera aldatzean?

Aita Yaingoikoak, Zeru ta Lurren Egilleak, zazpigarren egunean ats artu zuen bezela, Seme Yaungoikoak, gure Zururatzaileak, *Igandean* atxoin (ats artu) zun bere nekaldi, gurutz iltzatzeta eriotzaz; eta Espiritu Saindu Yainkoa, gure Santifikatzailea, mundua donetsi edo santifikatzera *Igandean* yetsi zan. Ara, zergatik dan gure Igandea, isrraeldarrena baño, askoz (aunitzez) oroigarriagoa ta goragarriagoa. Igandez landara, Elizak beste Yai-egun bakar batzuk ere yarri ditu; Lege Zarrean isrraeldarrak zituzten baño, prankoz gutxiago, ordea. Ez aztu, gañera, ayek ez tzirala oyen *irudik* besterik; erretratalariak paperean ateratzen dun antza, gizonaren irudia *besterik ez dan bezela*.

Baño, or daude orain ere, len bezela, Lege Zerrekoi Yaiak austen zituztenen kaltetan Yainkoak esandako itz zorrotzak,



oraingo Igandean, Yaunagana biotza itzuli bearrean, ez Arri ta ez bere Elizari lotsarik gabe, lan dagitinentzat ere. Etorriko da, bai, Yaieko lantzale oyen zigorrada: edo beste munduan, betiko oñaze miñetan; edo emen bertan, beartasunéz eta gaitzez beterik; edo, askotan (aunitzetan), gertatzen dana..., bietan! Emen eta an; munduan eta suleizean (inpernuan) zorigaiztokoak izan ditezen!

V

Igande ta Yai-egunetan lan dagitenak, ez tiotela asko (aunitz) begiratzten beren arimen zeruratzeari.

Ez tigu naski iñok esango, gora-beira gutxikoa dala, deus gutxikoa dala, aipatu dugun ori: au da, geren arimaren zeruratztea; geren arimaren *betiko* zeruratztea; Yainkoak eman zigun arima *bakarrarem* zeruratztea; Yesukristok bere odolez *erosi zigun* arimaren zeruratztea.

Nekazari, langille, sariangatik aste guzian lan dagizutenak; Igande ta Yaiegunetan, ere, bearrik gabe ta legearen kontra lan dagizutenak..., esaidazute egia ta erantzun: ¿noiz ekin bear diozute zeren arimaren zeruratzeari? ¿Gizonak duen egitekorik nagusien oni ez al dizkiozute alditxo batzuk bederen eman bear? ¿Nork eta nola sinetsi errezatzen dutela, Yainkoaganat biotza goratzen dutela, betiko zoriona edo zoritxarra dakarkigun egiteko oni, egiteko bakar ta izugarri oni, beren animaren zeruratzeko oni begiratzten diotela astel-egunetan, Igande ta Yai-egunetan ere lanean ikusten baititugu!

Ez pa-gabiltz Yai ta Igandetan lanean, naiko garai bádugu, Yai egunak gordetzeko agindu zorrotz au betetzeko: otoitz egiteko, elizkizunétara yoateko, biotza Yainkoaganatzeko... Lanean ari ba-gera, ordea, ¿nola zeruko gauzei begiratu? Eta, zeruko gauzei ta bere arimeko gauzei begiratzten ez tienak... onek, nai ta nai ez, betiko zoriona alde batera utzi du!

Bádira zenbait protestante (*errelixio gaiztoko*) larumbata yai gordetzen dutenak, eta asteko beste egun guziak munduko gauzetan darabiltzenak. Ez tago ori ongi. Baño, ¿ez al dago makurrago oraindik, aste guzia, Igande ta Ya-egunak ere, munduko gauzetan, diru gauzetan, laixter emen utzi bear ditugun irabazi ta aberastasun kaxkarretan erabiltzea?

¡Ez ta, ez, berdiña, kristau onen eta kristau gaiztoen ibillera Igande ta Yaiegunetan! Kristau onak—eta ala dira Nere elizbaturriko geyentsunak—bai baitakite alperrrikakoak eta kaltegarriak dirala mundu ontako aberastasun guziak, beren arima ez zerutzatzekotan; arima ori, beren soinekoa bezain txukun daramatela, an diyoaz Eliz Nagusira eta, oraindik, garbiagotzen dute, Meza aurrean (aintzinean) beren obenak aitortuz; eta indartzen dute, gure Yauna maiz artuz. Apez yauna, or ari da, bere eliztarren alde Meza saindua ematen eta otoiz beroak zeruratzeko goratzen. Oyek, an daude Meza entzuten, apezarekin bat egiñik. Kristau on oyen adimena (entendimentua) argitzen da eta beren sinismena sendotzen da Igande ta Yai-egunero, Espiritu Sainduaren itzlekutik Apez yaunari aditzen dizkioten itzaldí zerukorrakin. Ola, yकिनen gañean daude, zer Yai datorzen eta zer egin bear duten asteaz. Esaten diote Errosario saindua Andre Maria Birxiñari. Ez tute uzten kristau ikasbidera yoan gabe. Irugarren Ordenetako, Kongregazio ta Kofradiétako elizkizun guzietan an dira beti. Eta elizkizunetan izandu ondorean, bádute oraindik naiko garai adiskideakin yolasean aritzeko, yostatzeke, asteaz beren izardiarekin busti dituzten belar-soro ta alorrek geldí-geldí ikusteko, elkarren arteko billeretan alditxo batzuk alai ta gozo igarotzeke, eguzkia mendi gañetan izkutatzean eta arratsaldeko «Agur Maria» yotzean, etxera urbiltzen dirala.

¡Zeinen zorionekoak diran kristau oyek! Beren familik (sendik) pake ederrean, eztitasunean eta zori onean bizi dira; eta, emen, lurrean, ala elkar maite izan baitute etxeko guziok, egunen batean, an Goyan ere, alkarrekin bizitzea nai lukete beren gogorik beroenez.

Begira, ordea, ta ikusi Yai-egunak gordetzen ez tituztenak.

Batzuk—dio Sardá eta Salvany'k—or bizi dira, Goi artako gogapenik gabe, otoitzik egin gabe, beren bizitza zerbaít eztitzeko gozotasunik gabe; ez yolas ta ez alaitasun, burua lurrean, goldean edo aitzurrean dutela, abere biurturik... Beti asarre dirudite, beti aurpegi illunakin; gogorrek, agintzen; biurrik, bes-teren aginduk egiteko. Lurrekin borrokan dabiltzela beti?—¡Bádute aren antza!... (1). Ez al da izango, seme maiteok, olakorik zuen artean!

(1) Sarda y Salvany, XI, VII. Las Fiestas.

Beste batzuk, bear ba-da, yoan dira goiz Mezara; baño, or diyoaz gero, bearrik gabe ta baimenik gabe, goiz guzirako lanera. Arratsaldean, berriz... ¿bezperétara?—Bai, poliki!—Kafe ta ostatuétara, makurragókoren batera, ez pa-da. Andik, berandu etxera, naiko edari gañean dutela, itz arroak galankiz esanez. Etxera sartzean, nai ta nai ez, beren emaztea ta seme-alabak lotsaz bete bear...

Batzuei ta besteai esan bearrean gaude: erokeri aundia dala, beste munduko ondasunak galduz, mundu ontakoen billa ibiltzea, biak galtzen baitira askotan (aunitzetan). Eta ala ez izan-da ere, ¿zertarako ditugu gure biziaren azkeneko ordu artan Irati'ko aberastasun guzia, gure alorretako gari talde guzia, Naparroa'ko mahasti guziak, munduko urre guzia, ez paigaituzte oyek denak, *geren obenetatik atera-aziz*, zeruko bidean sartuko?...

## VI

**Igande ta Yai-egunetan lan dagitenen ibillera, Yaungoikoaren eta, batez ere, gudanako duen Arduraren, oinpetze gorria da**

Yaungoikoak arras ongi daki, gizonak Yai-egunetan ere, astel-egunetan bezela yanaria bear dula; beste aldetik, Yaun berak agintzen du Yai-egunetan lanik ez egiteko. ¿Utziko al du, bere eskuetatik atera zan izatedunik bikañena, ornitu gabe ta begiratu gabe, itsasoan dabilitzen arrayez; aidean dabilitzen egaztiez; lurrean katazkatzen diran aberez; galarzetan (gari alorretan) sortu diran loretxoez ardura daukinak? «Eta soineko onengatik, zergatik arduratzen zerate?—zion egun batez gure Zeruratzaileak (Mat. VI, 28). Ikusute, nola azitzen diran landetako liliak. Ez dagite lanik; ez tira, ez ardatzean, ez euntzen ari. Eta nik esanen dizuet: ez ta Salomon ere, ez tzala ain ongi yantzi, bere aunditasun guzian. Bada, gaur arro dagon eta biar sutara bear dun belarra ain egoki yazten ba-du Yainkoak, ¿zenbategyago zuek, sinismen gutxiko gizonok? Ez, pada, larritu, esanez: ¿zer yan edo edango dugu, ala zerekin yantziko gera? Yentillak ibiltzen dira gauz oyen billa. Zuen Aita zerukoak badaki ongi aski gauz oyen guzien bear zeratela. Billatu, bada, lenengorik Zeruko Erreinua eta Aren adiskidetasuna, ta gauza

oyek guziak, bearrean zeren buruk ikusi gabe, emango zaizkizue».

Aditu ongi: billatu lenengorik Yainkoaren Erreinua, eta beste gauza guziak—jez izan bildurriki!—emango zaizkizute. Au obeki artu (entenditu) dezagun, dio ontaz Krisóstomo Sainduak: «Orain ematen zaiguna ez tala deus ere, gero emanen zaigunaren aurrean yarri-ta. Orrengatik ez tigu agintzen lurreko gauz auek eskatzeko, zeruko ayek baizik; eta oyen bearrean ere ez tugula geren burua arkituko, uste osoa izateko. Billatu, bada, geroko gauzak, eta oraingoak ere izanen dituzu: ez ibili begien aurreko oyen billa, eta, ezpayik gabe, erditxiko dituzu... Zure indar eta asmo guzia zeruko gauzetan yarri bear baituzu, zere izen onaren kaltetan zoaz, emengo lurrekeriei lotzen batzatzazkie» (1).

Ez esan, zeren lan debekatu ori onesteko, bear bearrezko gauzen atzetik (gibeletik) zabilzetela ola. Aipatu (erran) dugun Saindu orrek dionez, esango ba-zenu: «Ara, zergatik dagidan (egiten dudan) lan ori; bear bearrezkoak baititut gauza oyek... Nik erantzungo nizuke: Orrengatik, bada, ez tuzu izan bear oyen ardurarik; *bcrr-bearrekoak* diralako, diozun bezela... Bai al da aitarik, bear duten ura ere eman gabe, bere semeak utziko ditunik? Beraz, onengatik bakarrik ere, nai ta nai ez, Yainkoak bearreko ori emanen du. Bera baita munduaren egillea, eta ongi baitakizki onen bearrak. Ez tezakezu inolaz ere esan, Bera dala, bai, gure Aita eta bearrezko gauzak eskatzen dizkiogula; gerta ditekela, ordea, Bera ez egotea gure bearren yakile. ¿Nola ez?—Berak egin zun-da mundu au, Berak egin zun-da ola, dagon bezela, bere bear guzikin, eta ongi baitakizki onen gora-beirak, ¿ez ote ditu, bada, zer orrek bezain ongi ezagutuko ta yakingo ta ikusiko zure bear oriek?»

Ez aztu bein ere, Tobias sainduak bere semeari esan zizkion *itz onak*. «Ez izan bildurrik, seme,—zion—; egia da bear-tsuk gerala; baño, naiko ondasun izanen dugu, Yainkoa gerekin ba-dugu eta obenetarik (pekatuetarik) aldentzen ba-gera eta zuzen ba-gabiltz» (2).

¿Zertarako nekatu, Yaungoikoa naigabetuz, bere laguntza

(1) Itzaldi autatuak, Aita Ogarak itzuli-ta.

(2) Tob. IV. 25.

aldentzen eta gaitzesten baitugu gerok? Zuek *ereiten* aal duzute, bai; bai ta *yorratu* ere; baño, ez pa-dio Yainkoak *asiera* ematen, ez-paditu zuen izardik onesten (bedeinkatzen), alperrik ari zerate lanean: garai galdua da! Naiko gari (ogi) bildu-ta etxeko aletegiak bete ta mukurutu ondorean ere, Yainkoak, biziaren eta erioaren Yabe baita, bere nai izate utsarekin egin dezake, gauz oyen onik zerendu ez dezazuten. Tximista (oiñaz-tarra), gaitzak, iltzea bera, eta Yainkoak dauzkin beste milla bide, ez al daude beti Aren eskuetan, gizonaren obenak eta arrokeriak zigortzeko?.

¡Zenbatez obe zenukete, nekazari biotzeko oriek, Isidro Sainduari, zuek bezela, Nekazari zan arri, yarraituko (segituko) ba-zenio! Kristo eta bere Sainduen yarraile (imitazale) zintzoa baizan, lenengorik Yainkoaren Erreinua eskatu gabe; Bere ta bere Ama Saindu ta Aingeruen omenean goratutako elizai ikusaldi bat egin gabe, bein ere ez zan lanera yoaten. Ta gero, egunez, lagun izaten zitun oyek. Eta Yainkoak eman zion naikoa, bere bearrak beteaz gañera, beartsuei oparo (esku zabalkin) laguntzeko! (1).

## VII

Zer dioten gizon aundiek Igande ta Yai-egunetako lanaz.

Zer ondasun dakarzkigun Agindu onen betetzeak eta zer makur bere ez betetzeak.

Zergatik gorde bear ditugun Igande ta Yai-egunak, argi aski erran dugu lenago. Ala ere, adi-eraziko dizuegu Artzai Eskutitz (Pastoral) ontan, zer esaten duten gai edo gauz ontaz Aita Sainduak, eta Elizeko beste Saindu, Idasle (Eskritore) ta Itzlariek; Yakin-erazteagatik, bada, buru oneko guziek gaitzesten dutela egun oyetako lana.

«Erri guziek yaitzen dute Yaunaren eguna, gordetzen dute zazpigarren eguna»—zion bigarren gizaldian, Teofilo, Antioquia'ko Gotzai Sainduak.

«Igandearen austeak, erriren batean zabaltzen ba-da—zion Pio IX-garrenak—Yainkoaren zigorrada bere gain erakarriko du».

(1) Brev. Romanoan.

«Igandearen ez gordetzeak gaitza guziak badakarzki—dio Leon, izen ontako XIII-garren Aita Sainduak—: sinismenaren itzaltzea, otoi tzaren uztea, betiko biziaren atzentzea (ahantzi-tzea). Itz batean errateko: gizonaren bizieratik arrunt Yaungoikoa aldentzen du.»

«Lanari uztea—dio Aita Saindu onek berak—ez ta alperkeri utsean egoteko; gutxiago, berriz, dirua xautzeko (ziplatzeko), eta yolas gaiztoetara yoateko, askok (aunitzek) nai luketen bezela. Baizik, elizkizunakin donetsi edo santifikatu bear da Igande ta Yai-egunetako lan uzte ori. Egundeyetako atsedanak, Yainkoakiko eginkizunakin elkartzen ba-dugu, luzaro ez pa-da ere, aztu-azten dizkio gizonari eguneroko lanak, zeruko gauzetara biotza gorazten dio eta eman-azten dio Yaungokotasunari, zor dion agurtza edo adorazioa. (1) Orrengatik esan zun Yaungoiko berak Testamentu Zarrean: *Oroit adi ere Yaunaren eguna donetsi edo santifikatzeaz* (2); eta orrengatik, guri zer egin erakusteagatik, mundu onen egiteari azken eman zion bezelaxen: *Zazpigarren egunean ats artu zuen Yaungoikoak* (3).

Igandean arriketan zebillen batez esan zun Ars'ko Apez Sainduak: «Gizon au inpernuan bere arima ezin sartuz dabil- lera, uste dut». Deuteronomio'ko liburuak dakarzkin eta lentxeago ezarri ditudan itz ayengatik, zion ori Yoannes Bautista Bianney, Ars'ko Apez Sainduak, eta yarraitzen du, gañera:

«Bi bide dauzki gizonak, bear gorrian yartzeko: Igandetan lan egin eta besterenetik ostu edo ebatsi. Nai ta nai ez, zur izan bear Yainkoa gizonakin lurreko ondasunak ematean, ain-zur danez geroz gizona, urtean Yai-egun batzuk Berari eskeñi nai ez-eta.»

«Yai-egunen austea, pekatuetan nagusiena da—erran zien Andre María Birxiñak, Saleta'ko (Prantzian) bi artzaitxoai ager-tuz;—onengatik eldu baitira ainbeste makur errien gañerat. Oroitu, bestelaz, yoan dan urteko lur-sagar edo pataten galt- zeaz. Eta makur aundiagokoak ere ez taude urruti (urrun), zuen errik bide ortatik ba-diyoz».

(1) Langilleen bizieraz, 1891-ko Orrillaren 16-ean, eman zuen Enzikilikan.

(2) Itzul. XX, 8-an.

(3) Asier. II, 2-an.

«Zein egia dan Yaungoikoa bádala, ain egia da asteko egun bat Yainkoari eskeñi bear zayola, dio *Le Courtier*'ek. (1) Erriak okertu dira, gezurretan erori dira, galbideai emanik daude toki askotan, baño denek yaitzen dute astearen egun bat: atsedean artzeari eta yainkozko gauzei egun ortan emanik».

Russó biurri ark, bera bezain okerra zan, D'Alembert zeritzayon bati, diotsa bein batean: Yaungoiko on da zuzenak, lan egiteko, bai, baño ats artzeko ere agintzen dio gizonari; eta gizonaren izaerak ere (nekatzen baita) ori bera eskatzen du».

Milla zortzireun eta berrogei ta sei-garren urtetik, au da, Makalay'ek Igandeak yai gordetzeko legea eman zuenetik, gure aberastasuna, beste ainbeste ta geyagotu da, —zion itzlari obenetako batek Londres'ko Parlamentuan. Ats artzeko egun ori ez ta galdua, ez. Goldea eta makinak geldi dagozen bitartean; diru-etxeak eta olak (pabrikak) ixilik dauden bitartean, Ingalterra aberasten ari da. Igandeko geldi egote orrek azkartzen baititu bere gizonak, len baño bizkorrago, astelenean lanari ekiteko».

Paul Niemeyer (2), osasun-bideaz erakusten, Berlin'en ari danak dio: «Igandetan lanik ez egitea, lenen-lenengoa da, asko bizitzekotan. Ontan ezagutzen dira erriak, buruz ongi dauden eta aurreratuk ala atzeratuk (aintziñetuk ala gibelatuk) dauden». Pablo Mantegazza, Sendakintzako irakasleak esan zun: «Igandetako ats artzea ez tala Elizak agitzen dun gauza bakarrik, baño gizonaren izaerak ere bai; bear-bearrekoa baita langillen osasunari ta biziari laguntzeko. ¡Ai, Igandea gordetzen ez tun laugille ori! ¡Kaltetarako baitu, bere kaltetarako, atsedean artzeko egunean, Yainkoa naigabetuz, irabazi, dun diru ori! (3)» «Nondik datorz—zion Montalembert'eko Konde on da yakintsuak—, nondik datorz, Errien matxinada edo nahaste egunetan, ez fede ta ez lege, orain dirala zazpi gizaldiko basatiak bezelaxen, gizonaren aurrerapide guziak ondatu bear dituztela-ta, sortzen zaizkigun giza-talde oyek?... ¡Ai! Igandean lan egitera Erriak bear-azi zituztenez geroztik, langilleak Igandero lanean ari diran zoko beltz ayetatik ateratzen dira. Urrundu baizituzten, Elizak, Ama onak bezela, eman zizkien

(1) Igandea, Lopez Nvoa'k aipatua.

(2) Crónicas del Trabajo-an, Posse y Villelga'k aipatua.

(3) Posse berak aipatua.

ikaskuntza ta alaitasun ayek guzietatik, deus ez yakitea eta diru-nai gaitza beren buruez arrunt nagusitu zan. Yendetza au goseaz dago; arimaren ogia kendu baizayo. Yendetza onek ez t1 sinismenik; gizaldi osoan or aritu baitira aberatsak, yo ta yo, ayen biotzeko aberastasun ori ezin kenduz. Ez ta legerik ere ez tute; Igandetako lanik ez egiteko legea beroyen aurrean autsiz, beste legeai ere axolik edo ardurarik ez izaten erakutsi baitiete». (1)

Zertarako yarraitu? Itzegin digu Testamentu Zarrak; itzegin digu Berriak; itzegin digute sinismenak (fedea) eta gure adimenak; gizon aundien esanak, yakinduriak eta gogamenak ere bai. ¿nai al duzute oraindik geyago?...

## VIII

### Gizon argi baten aitorrera edo esan izugarria

An, milla zortzireun da berrogei ta zortzigarren urtean, Paris'en baztarreko auzo batean bazegoen yendetza aundia, baztarrean bildua. Matxinada edo nahaste aundi artarik atera berrik baiziran, sugar piztua zaramaten oraindik beren barrenean. Oyu eta deadar sumiñek laixter ixil-azten zituzten, andik edo emendik sortzen ziran, anaitasuneko edo paketzeko solas eta nai guztiak.

An zan baztarrean, Bruker zeritzayon langille zaar bat. Oker bidetatik zuzendu-ta, atzera berriz kristau on-ona egiñik; beti gertu edo prest baizegon noiz nai itza'di bat botatzeko, gizonen begiramen gabe ta iñungo bildurrik gabe; zeritzayon batean, or zutitzen da Bruker, esanez:

Adiskideak: Entzuten dut nik emen arrenkura pranko eta egizat dauzkit. Langillea, egiazko langillea, ez darabilte emen, berari dagokion bezela. Ez tzayo aditzen, nausatzen zayo (ez ta ezertan artzen); eta bitartean, langille onek egin du, aberatsek bear izaten duten *gusia*, oyek lanik egin gabe ori erdisteko. ¿Bai ote da lurrean zerbait, bere eskuetatik ateratzen ez tanik?... ¡Eta, ala ere, bera aztua eta nausatua edo baztertua dago! Itz ok, txalo bero-beroakin artu zituzten lagunek. ¡Ez txau-

(1) Lopez Novoak aipatua.

lotu ain laister—esan zun Bruker'ek;— utzi akitzera (bukatzera).

Ez ta, egiazko langille bat, besterik; beste guziak egin dituen: *Yaungoikoa*. Bai, adiskideak, *Yaungoikoa da*. Gure lanak, ez tira bere lanen irudiak baizik. Berak egin du lurra eta, argia bialtzen digun, eguzki eder ori; goratu du gure gorputza, arima ez-ilkor onekin bizia emanez eta geren buruan adimena ezarriz; Berak egin zitun zugaitzak (arbolak), landareak, loreak eta atsean (arnasean) artzen dugun aize au; Berak egin du, berotzen gaitun, su ditziradun ori, jeta nai duzute zuek, langille egiazkoak eta aipatuak izan, lurra landu duzutelakoz, lur artera gari pikor batzuk bota dituzutelakoz, beraren aunditzeaz eta ondorekoetaz ardurarik (axolarik) izan gabe?... ¡Ez! Langille egiazkoa, urtearen irureun da iruetan ogei ta bost egunez, eguzkia atera-azi ta euria erori-azten duen ura da. Esku batekin goizeko intza eta besteakin eguerdiko beroa bialtzen digun ura. Loreak idekiazten dituena eta, yanaritako duzuten pikorra (alea), ondu-azten duena. Orra, or, *Langille bakarra eta egiazkoa*. Zuek, zeren kontra egiten diran bidegabekeriez arrenkuratzen zeratenok, j egiten al duzute zerok, Berak zuzenbidez eta eskubideakin eskatzen dizuena? Berak ez tizute besterik eskatzen, *ordañez*: eguneroko otoitza eta Igandetako atsedena bakarrik. jEmaten diozute *Yaungoikoari* ordain ori? Arrenkuratzen zerate—diot berriz ere—, ezaguera dezutenok. jBaño, Berak zer esanen du? jEz al da egia, Langille nekaten ez tan onek, zuetaz eta zuen gauzetaz ardura (axola) badaukila gaez eta egunez? Ez al dizkizue Berak ematen egurra, ogia, soinekoak, indarra eta bizia? ¡Ah, bai! Berak, zuek baño, lan geyago ta obeki egiten du. *Eta, ala ere*, Igandea iristean eta, eguneroko mesedeakgatik eta asteroko mesedeakgatik zor diozuen: otoitz batzuk bere omerako, Meza saindua bere onorerako, eta atsedena (deskantsua) zuendako, eskatzean, ez tuzute aditu nai bere eskaerarik eta ez tiozute eman nai bere ordainik, ez tiozute eskeñi nai zeren agurrik eta esaten diozute: Atzera! Ez zaitugu ezagutzen. Ez tizugu, birao edo blasfemi eta nausa edo burla besterik, eman bear. Aitortu ezazute, noizpait bederen, agitz ordaintzale txarrak zeratela eta ebasten edo osfutzen diozutela *Yaungoikoari*, zeren Aita eta Langille on orri!... *Eta, ala ere*, badakizute aurtzarodanik, langillearen saria gelditzea

gaiztakeri aundia dala eta Zeruko zigorrada dakarrela... Arrenkuratzen zerate, bestek zuen lanetik onura eta irabazia ateratzen dunean! ¡Oi! Baño, zuek *Yaungoikoari* dagiozuten baño, lapurreta eta gaiztakeri aundiagorik, inork egiten al dizue zuei?

Ikus zagon: Ez al dira Bere eskubideak, zuenak bezain begiragarriak? Zuei ainbat begirapen, j ez al zayo Berari zor? Bai; zuen saria, nai ta nai ez ordaindu bearrekoa da, eta zuek, ongi ikusiak egoteko diñakoak zerate. Baño, asi zaitezte Yainkoarekin izaten, zuekin besteak izatea nai duzuten era berean. Ordun, bai, egiten al duzute *Gora* deadar eta *Yaungoikoak* berak entzunen ditu zuen aiak eta asperenak».

Bil-toki guzia dardaratu zan ango txaloakin, Aita Duha-yon'ek dionez. Erria gaiztatzeagatik lan asko egiten ba-da ere, geyenean biotz zuzena ta zintzo askia dauki oraindik, eta, benetan itzeginez geroz, guztia erditxi dezakegu beragandik...

jAi, ene seme maiteok! Bruker'en itzaldi bikañeko ukatze ta biurrikeri oyetan, zenbait oraindano erori ba-zerate, uste dut Nik, emendik aurrera, ondu ta zintzotuko zeratela; uste dut Nik, Igande ta *Yai-egunak*, yai eginen dituzutela.

### A Z K E N A (akitzea)

Erran dugun guztia onetara dator: *Yai-egunak*, *Yaungoikoaren egunak*, gorde eta yaitu bear dirala beti.

*Yai-egunak* gordetzen dituzten gizonak eta erriak biziko dira. Oyetaz erran zun Dabid, Igarleak: «Zorionekoak, *Yainkoari* bildur diotenak eta Aren bidetik dabiltzenak. Zuzen dabillenak, pakean yanen du bere eskuetako lanetik eta guzia ongi aterako dakio (zayo)... *Yaunak*, Siondik (Zerutik) bedeinkatuko du eta, bere bizi guzian, an izango du Aren laguntza eta, bere semeen semeak ikustea ere, erditxiko du».

jEz ola, besteak! Igande ta *Yai-eguneko* lantzaleak galduko dira. Ez pa-dira arrikaturik iltzen, Lege Zarrean bezela, zigorrada izugarri ura agindu zun *Yainkoa* bizi da, gure gain dago eta agintzen du eta emanen dio bakoitzari berea, Berak nai du nean eta Berak nai dun bezela. Ez ditezke gelditu, eta ez tira geldituko ere berena artu gabe, zigorrada artu gabe, *Yaungoikoak* ain itz gogorakin, Sinai'ko mendian, adi-erazi zigun agindu ura: «Oroit adi, erria, *Yaunaren* eguna gordetzeaz», betetzen ez dütanak.

Esan bezate, otoi bezate, eska bezate, ahal duten guzian Apez *Yaunak*, inork lanik ez egiteko Igandetan eta *Yai-egunetan* bearrik gabe eta, bear dan baimenik gabe. Bete bezate

agintariek beren egitekoa, naiz *goikoak* eta naiz *apalak* (beikoak); zenbat eta gorago dauden, ordun eta *zarrotzago* epaitu edo yuzkatuko ditula Yaungoikoak, oroituz. Eta, basoetako, landetako, oletako, lantegietako, sal-erostetxetako yaun da yabeak ongi gogoan artu bezate: *Zazpigarren eguna eta beste Yai-egunak ez tirala mundu ontako nagusienak; guzian Nagusienak, Yaungoiko gure Yaunarenak baizik.*

Eta zuek, nekazari ta langille maiteok, elkartu zaitezte Igan-de ta Yai-egunetan lanik ez egiteko eta lagundu batek besteari. Ezar zazute multaren bat, legea eta Elkartasunari emandako itza, betetzen ez dutenentzat. Elkartu bitez, —gauzak, soinekoak, lanerako erramientak eta abar erosiz, —tiendetan, almazenetan, eta beste olako etxetan beren dirua uzten duten katolikoak, eta ar bezate asmo sendoa: izentimorik ere ez erosteko Yainkoaren agindu au ola oinperatzen duten saltzaleen etxetan! Orduan, bai, arkituko duzute, ene maiteok, zorionera daraman bidea. Eta, orduan, etorriko dira zuen gainerat Yaungoikoaren bendizioak. Egin beza Berak, ayen ekarle izan dadin, Nik orain emango dizuedan au: Aitarene † eta Semearne † eta Espiritu Sainduaren † izenean. Ala biz.

Iruña'ko Nere Yauregitik, 1928-ko Otsaillaren 18-an.



† MATEO,  
Iruña'ko Gotzayak

Nere Gotzai Agurgarri ta  
Begiragarriaren aginduz:

Iruis Goñi, Iruñ.,

Maestreskuela ta Idaslariak.

Irakurri (leitu) Artzai Eskutiz au, artu-ta urrengo Igan-detik asiz, Meza Nagusian eta, yenderik aski baldin ba-da, beste Meza guzietan ere, ofertorioko garayean eta erriaren izkuntzan, Nere eliz-barrutiko eliz guzietan.

